



78.zk

2023^{ko}
maiatza

Berbarotarra



Bost udaleku, bost gozaleku

Ikasturtearen amaierarekin batera, badatoz udalekuak. Iaz bezala, ekaina eta uztaila bitartean 5 udaleku antolatuta ditugu. Durangon Udan Olgetan egingo da 4 astetan zehar; bi udaleku finko izango ditugu: Larraul (Gipuzkoa) eta Mendigorria (Nafarroa); bi ibiltari: Ibiltari txikia (Etxarri Aranatz - Gasteiz) eta Ibiltari handia (Bergara - Donostia). Ume eta gaztetxoek ekintza ugariz

gozatzeko aukera izango dute. Udan Olgetanen adibidez, uztail osoan zehar, irteerak, eskulanak, hainbat jolas eta igerilekuetara irteera egingo dituzte. Bestalde, Larraulera joango diren umeak Larraulera eta inguruko txoko eta ibilbideak ezagutzen ibiliko dira ekainaren 26tik uztailaren 5era. Urtero lez, gaztetxoek Mendigorrian 12 egun igaroko dituzte, eta haiek

ere igerilekuetara joango dira, eta irteera politez gozatu dute. Ibiltari Txikia 6 etapatan egingo dute, DBH1 eta DBH2ko gazteek, 12 egunetan zehar. Horrez gain, ekintza berezietan gozatu dute Durangaldeko gaztetxoek. Ibiltari Handia, berriz, 7 etapatan egingo da, eta bidean, paint ball-ean jolastuko dute eta mila abentura gehiago biziko dituzte.



Ainhoa Zubizarreta (1999, Durango)
Ibiltari Handiko koordinatzailea

Zenbat urte daramatzazu Berbaron? Lehenago erabiltzaile joan izan zara?

Aurtengoagaz hamaika urte izango dira: umetan, bost urte; hezitzaile, hiru, eta koordinatzaile bi, aurtengoagaz hiru.

Zerk bultzatu zintuen udalekuetara koordinatzaile joatera?

Orain dela hiru urte proposatu zidatenean ez nuen zalantza handirik izan. Betidanik gozatu izan dut udalekuetan, eta koordinatzaile joatea beste perspektiba bat ezagutzeko aukera iruditu zitzaidan. Gustura sentitzen naiz rol honetan.

Nola ikusten duzu zeure burua aurtengo udalekuei begira? Gogotsu zaude?

Gogotsu nago, udalekuak beti izaten dira arnagune. Ziur nago asko gozatuko dugula.

Zertan desberdinduko zenuke hezitzailearen lana eta koordinatzailearena?

Erantzukizuna handiagoa da eta ardurak ere bestelakoak dira. Hezitzailea hezitzaile da, baina koordinatzaileak hezitzaile ere izan behar du ere. Norbere buruari gehiago exijitzen zaiola esango nuke. Nik asko disfrutatzen dut.

Noiz hasi zinen gure udalekuetara etortzen, eta zer bizipen duzugogoan?

Eznagoziur, baina ez dut gogoratzen udaleku gabeko udarik, txiki txikitatik ibili izan naiz udalekutan. Oso egun garrantzitsuak izan dira, deskonexio eta irakaspenez betetako egunak. Jende eta esperientzia asko datozkit burura.

Nola ikusten duzu zure burua ume izatetik hezitzaile praktikari izatera?

Hasieran sekulako pena eman zidan azken urteko ibiltaria amaitzeak, baina orain konturatu naiz ez dela horrenbesterako. Datozen urteetan, udalekuen magia galduko ez dela uste dut, eta horregatik ez da

inoiz arazo izango monitore izateko ume izateari uztea.

Zelan gonbidatuko zenituzke inoiz joan ez diren haur eta gazteak Berbaroko udalekuetan parte hartzera?

Ulergarria da beldur pixka bat izatea, ia bi astez, etxetik kanpo lo egitea hasieran gogorra izan daiteke. Baina neguan ere egonaldi laburragoak antolatzen dira, eta berdin disfrutatzen da. Aukera duen edonori gomendatuko nioke bertara joatea. Beste pertsona batzuk ezagutzeaz gain, zeure burua ere uste dena baino gehiago ezagutzen laguntzen du eta.



Xabat Arrasate (2005, Durango)
Udan Olgetaneko Hezitzaile praktikaria



Larraitz Angulo (1999, Durango)
Ibiltari Handiko sukaldaria

Zeren arabera prestatzen dituzue menuak?

Aurreko urteetako menuak izaten ditugu eredu. Guretzako erreza eta gazteentzako gustukoa izango den menua sortzen dugu. Udaleku ibiltari bat da, horrek ia egun osoa ibiltzen ematen dute, beraz, elikadurari garrantzia ematea ezinbestekoa da.

Zerk bultzatu zintuen udalekuetan sukaldari joatera?

Urte batzuk eman nituen hezitzaile udaleku ibiltarian, eta ez zitzaidan gustatzen. Duela hiru urte, sukaldari joateko aukera izan nuen eta zalantzak banituen ere, onartu nuen.

Hobeto moldatzen naizela konturatu naiz, eta datorren hau hirugarren urtea izango da sukaldari lanetan.

Zaila izaten da hainbeste jenderentzat kozinatzea? Nola antolatzen zarete?

Urtetik urtera errazagoa da, baina zaila eta estresantea izaten da. Jende askorentzat neurriak ondo kontrolatzea oso garrantzitsua da. Antolaketa dagokionez, menua osatzearekin batera, elikagai bakoitzeko neurriak zehazten dira. Lehenengo egunean 2-3 egunetarako erosketa handia egiten dugu eta ondoren, herrietako dendekin konpontzen gara.

Labur Esanda lehiaketaren III. edizioa egin genuen

Berbarok antolatzen duen Durangoko film laburren lehiaketaren hirugarren edizioa egin genuen martxoaren 24 eta 25 artean, Plateruenan. 8 taldek eman zuten izena, baina, azkenean, 5ek aurkeztu zuten lana. 24 ordu eduki zituzten film laburrak grabatu, editatu eta entregatzeko, gai bat, objektu bat eta esaldi bat emanda. "Har hik etarrak" taldearen "Parisera" film laburra izan zen irabazlea, eta "Zaharraz harro" eta "Urkiola" taldeak izan ziren bigarren eta hirugarren. Giro onean egin genuen bideo emanaldia eta sari banaketa, eta, euskarazko film laburren sorkuntzan gure aletxo ipinita, hurrengo ediziora arte agurtu ginen. Film laburrak Berbaroren Youtubeko kanalean daude ikusgai.



LANDUE: Durangaldeko eremu sozioekonomikoan euskara sustatzen

Eusko Jauriaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskara Eremu Sozioekonomikoan Sustatzeko 2020-2023 Plana onartu zuen. Durangaldea eskualde sozioekonomiko estrategikoa izanik, Durangaldeko Mankomunitateak lan-munduan euskararen erabilera areagotzeko ekarpena egin gura izan zuen 2021ean, Bizkaiko Foru Aldundia eta EJ-rekin elkarlanean. Hortik sortu zen LANDUE, Lan-mundua Durangaldean Euskaraz.

26 enpresak, LH-ko Ikastetxek eta elkargunek osatzen dute LANDUE komunitatea.

40 URTE

JULENE AZPEITIA

LEHIAKETA 2023



ipuinak · olerkiak · bertsoak / koplak

40 urte bete ditu Julene Azpeitia lehiaketak

1983. urtean umeentzako ipuin sariketa bat egiteko ideia sortu zen Udaleko Kultura Batzordean. Juan Antonio Aromak proposatu zuen "Julene Azpeitia" izena. Emakumea Durangon bizi izan zen urte luzez, eta umeak zituen euskalduntzerako helburu eta etorkizunerako esperantza.

Urte urte, 200 edo 300 pertsonen parte hartzen dute ipuinak, olerkiak, bertsoak zein koplak aurkeztuta. Ikasleak dira gehienak, baina adin tarte guztietako jendea aritzen da idazle zein bertsolari lanetan.

Aurtengo edizioan 250etik gora dira parte hartzaileak. Gehien aurkezten diren lanak ipuinak badira ere, bertsoek eta olerkiek ere goranzko joera hartu dute.

Ekainaren 11n izango da sari banaketa ekitaldia, Plateruena Kultur Aterpean, 12:00etan hasita.

"Ikutu, zabaldu, liluratu Zeuretzat da!"

Aurten ere, Liburuaren Egunaren harira haur eta gazteentzako hainbat liburu ale banatu ditugu Durangoko txokoetan edonork hartu eta irakurri ditzan.

Ekimenaren helburua euskarazko literatura sustatzea, plazaratzea eta irakurzaletasuna bultzatzea dira. "Ikutu, zabaldu, liluratu... Zeuretzat da!" lemapean irakurleak euskarazko liburuak irakurri eta partekatzerantz animatu nahi izan ditugu.



Hezkuntza Foroa sortu da Durangon

Iaz, Hezkuntza Foroa sortu zen Durangon, Udalak bultzatuta eta Oinherriren laguntzarekin batera. Bertan, herriko hainbat hezkuntza eragilek hartzen dugu parte. Foro honen helburu nagusiak hiru dira: Herri erronkei elkarlanean erantzutea, komunitatea indartzea eta herriko eragileen arteko lankidetzeta sustatuko duen elkargunea martxan jartzea. Hainbat saio egin dira foroa martxan jarri eta helburu horiek lortzeko bidean. Aurtengo asmoa foroari jarraipena ematea da. Asmo horrekin, foroko kideok elkarrekin zenbait proiektu sortu dugu, denon beharretatik abiatuz. Dagoeneko, hasia da lantalde bat 2023ko "Gau beltza" edo "Arimen gaua" herri mailan antolatzen, beste talde bat "Tratu onen dekalogo" sortzen, eta bestea kirolean eta aisialdian dauden beharrak aztertzen.



Berbaro Plateruenako kultur mahaian

2020 urte bukaeran Plateruena kudeatzen zuen kooperatibak antzokiko ateak zarratzea erabaki zuen. Hausnarketa prozesu baten ondoren, Durangoko Udalak Plateruena Kultur Aterpea zabaldu zuen, kudeaketa beregan hartu zuen eta kultur mahaia eratu. Boluntario sare batek osatzen du mahaia, elkarte zein norbanakoek, eta Berbaro mahai horretako kide da. Lantaldetan dihardugu lanean: tabernaren esleipenean, programazioan, hizkuntza irizpideetan...

Berbaro Plateruenaren hastapenetan egon zen, eta aro berri honetan ere bertan egon behar du. Sinesten dugulako Kultur Aterpeak gure kulturaren aterpe izan behar duela, Kafe Antzokiak egiten zuen antzera. Elkarrekin eta elkarrengandik ikasi, kontzertuetan, bertso saioetan, egonaldi artistikoetan, ikuskizunetan, tailerretan, hitzaldietan... Plateruena, Plateruenatik Plateruenara.



ARANTZA

DAZTek (Durangoko Alde Zaharreko Tabernak) dara oraingoan. Maiatzaren 13an ospatu zen Apirileko Feria, eta egitarau-kartelak ez du hitz bat bera ere euskaraz. Arantzaz beteriko kartela argitaratu zuten Apirileko Feria ospatzeko.

Ez, ez dago aitzakiarik, eta bai, agian, permisiboegiak izaten ari gara.

Bide batez, jakin ezazue Euskararen telefonora jo dezakezuela laguntza eske: 630474332 (Itzulpenak eta aholkularitza merkatari, ostalari, zerbitzu eta elkarrengandik).

LARROSA

Rio de Oro, DRTk (Durangoko Rugby taldea) eta Saltsanek jasoko dute maiatzean zehar antolatu dituzten ekintzak iragartzeko kartelak gutxienez elebitan daudelako. Kartel duin bat argitaratzeak misterio handirik ez duenaren adibidea. Txalotzekoa da? Ba, ez zen izan beharko. Baina egoera zein den ikusita, aipatzea ezinbestekoa da.

